

EKITALDIAK-EVENTOS / SAGARRA-MANZANA

Giro bikaina Astigarragako XIII. Sagar Uzta egunean.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 29/09/2013 · 17:15 · Editar

Sin comentarios



Sagar Uztak hamahirugarren edizioa bete du aurten tolaretako lanen hasiera ospatzeko eta sagarraren eta sagardoaren kulturaren oinarrituriko jarduera ezberdinak izan dira Astigarragako talde eta herritarren laguntzarekin.

Sagarra eta **sagardoa** protagonistak izan dira gaur Astigarragan. Urtero bezala, Foruen Plazan **sagarraren azoka**, **sagardo dastaketa** eta **2013 uztako lehen muztioaren elaborazioa** izan dira, tolarean bertan **muztioaren usadiozko elaborazio prozesua** erakutsi delarik: **kirikoketa**, **pisoiekin sagarra jotzea**, **txalaparta** eta **ekoiztutako muztioaren dastaketa**.

Oso harrera ona izan dute antolaturiko jarduerak: **Idiazabal Gaztaren dastaketan** 45 lagunek parte hartu dute (8-10 urteko haurrak eta helduak) eta 4 gazta ezberdinen ezaugarriak bereizten ikasi dute: itxura, azala, kolorea, begiak, usaia, egitura, zaporea eta arragustua.



Sagar Tarta Lehiaketan 23 parte-hartzailek beren sukaldaritzako dohaiak erakutsi dituzte eta denera 2 sari banatu dira: Astiko Dendarien Elkarteko dendetan gastatzeko 100€ko txartela eta produktu ezberdinez osaturiko lotea. Lehendabizikoa sariaren irabazlea **Idurre Baigorrotegi** izan da eta bigarren sariaren irabazlea **Gaizka Dominguez** izan da.

Bestalde, 11 parte-hartzailek Sagar Uzta jaiko unerik garrantzitsuenen argazkiak atera dituzte **VI. Argazki Rally Digitalean** parte-hartuaz eta urriaren 18an argazki bilduma onenen sariak banatuko dira Sagardoetxea Museoan.



Goizari amaiera emateko **sagardotegien arteko sagar bilketa txapelketa** izan da Foru Plazan Rezola, Petritegi, Zelaia eta Lizeaga sagardotegien artean. Lehia gogorraren ostean, **Astigarragako Rezola sagardotegia** izan da txapela eraman duena.

Honetaz gain, ostegunean Astigarragako tabernetan ospatu zen **pintxo-poteak** bisitari asko bildu zituen eta ostiralean Roxario jatetxean ospatu zen **Euskal Herriko sagarraren kata gidatuak** ere harrera bikaina izan zuen.

Tags: astigarraga, cata guiada de manzana autóctona, cata guiada de queso Idiazabal, concurso, Manzana, pintxo-pote, rally fotografico, Sagar Uzta, sagardoa,

Sagardoetxea, Sagarra, Sidra, tarta de manzana

Anterior post

Cata guiada de queso para niños y adultos en Sagar Uzta. Gazta dastaketa gidatua haur eta helduentzat Sagar Uzta egunean.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomía-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Giro bikaina Astigarragako XIII. Sagar Uzta egunean.



Gazta dastaketa gidatua haur eta helduentzat Sagar Uzta egunean.



2013 uztako sagardo sagarraren heldutasunaren egoera.



Euskal Herriko sagarren kata gidatua.



Sagar Uztako Sagar Tarta
Lehiaketa.

Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

Enviar

Comentarios recientes

Aritz en Donostiako XXVIII. Sagardo Eguna, irailaren 7an.
Hsedfuloi en **Sagardogintzan oinarritutako herri kirol lehiaketa XII. Sagar Uztan.**
david en Saizar sagardotegia, aurrealde berria eta irudi modernoagoa.
Sagardoaren Lurraldea en “Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.
Sagardoaren Lurraldea en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.